

«INGO XONAU!»

Oñatiko noka biziberritzeko egitasmoak transmisio etenaren kausak azaldu ditu

Hitana, hikota edo hikako tratamendua ohikoa da Euskal Herriko leku askotan; beste batzuetan, berriz, gainbehera dago duela hainbat hamarkadatik, edo are galduta ere. Hitanoaz hitz egitean, ordea, toka eta noka bereizi beharra dago, hurrenez hurren gizonezkoari eta emakumezkoari hitz egiteko adizkerak, alegia.

Lehenengoak leku askotan osasuntsu dirauela esan badaiteke ere, ezin gauza bera esan nokari dagokionez.

Horixe gertatzen da Oñatin, eta bertako herritar talde batek, emakumeen hitanoa galtzen ari dela ikusita, zenbait galdera plazaratu zituen: zergatik joan da galtzen nesken hitanoa? Zenbat emakumek

 **EUSKARA** / Xabier Izaga Gonzalez

Oñatiko zenbait herritarrek beren herrian hitanoaren transmisioan izandako etenari erreparatu zioten, gehienbat nokari dagokion etenari, hain zuzen. Badihardugu elkartearekin harremanetan jarri eta «Ingo xonau» egitasmoa abiatu zuten. Haren arduradun Idoia Etxeberriarekin hitz egin dugu.

dakite noka? Nola jaso dute? Transmititu al dute? “Ingo xonau!” izeneko ekimenak urtebete eman du lanean galdera horiei erantzuna bilatzeko asmoz eta joan den zapatu goizean aurkeztu zuen Oñatiko noka jaso eta biziberritzeko proiektua Santa Ana antzokian. Aurkezpena baino lehen txoago, noka dakiten emaku-

meen argazkia atera zuten Dukearen parkean, eta, ondoren, proiektua eta diagnostiko baterako ikerketaren emaitza aurkeztu. Dokumental labur bat ere erakutsi zuten, nokaren galeraren arrazoiak azaltzen dituen Oñatiko 50etik gora nokaduni egindako elkarrizketetan oinarrituta. Ekitaldiaren amaieran, nokaren era-

Oñatiko emakume nokadunak, Dukearen parkean. Juanan RUIZ I FOKU

bilera bultzatzeko txapak banatu zituzten.

HERRI EKIMENA

Urte hasieran, herritar horiek zer eta nola egin erabakitzeke elkartu eta Badihardugu euskara elkartera jo zuten, elkarte horrek ahozko ondarea jasotzen egiten duen lanaren jakitun. Udalaren babesa lortuta, 2019ko otsailean herriko hainbat emakume elkarrizketatzen hasi ziren. Batetik, hitanoari buruzko esperientziak, eta, bestetik, hikako beraien jarduna jasotzeko. Idoia Etxeberria filologo, idazle, Badihardugu elkarteke kide eta “Ingo xonau!” egitasmoaren arduradunak egin zituen elkarrizketak, baita horien azterketa ere, otsailetik maiatzera bitartean. Guztira, 54 lagun izan dituzte kamera aurrean, 52 emakume eta bi gizonezko, tertulia misto bi ere grabatu baitzituzten, noka ez dela emakumeen kontua bakarrik ikusarazteko, baina betiere emakumezkoen lehen tasuna emanda. Elkarrizketatuek emandako informazioarekin prestatu dute ikerketa: «Elkarrizketetatik ateratako datu guztiak aztertu genituen: bakoitzak nola jaso duen noka, zuzenean, zeharka, etxean jaso duten, eurek transmititu duten... hori guztia diagnostikoan agertzen da», dio Etxeberriak.

Oso pozik ageri da proiektuaren arduraduna «egundoko erantzuna» izan dutelako. Orain arteko lanak Badihardugu elkartearen ardurapean eta Ahotsak.eus proiektuaren babesean egin dira, baina aurrerantzean eragile gehiagoren parte hartzea ere aurreikusten dute.

Ikerketa-diagnostikoa egiteko, herriko hamahiru datu-biltzaile eta informatzaile boluntarioen laguntza ere izan dute. Oñatiko hamasei baserri-auzoetan egin



dute datu-bilketa, hitanoa base-
rri giroan gorde delako ondoen,
noka dakiten emakumeak gutxi
gorabehera zenbat diren jakite-
ko. Hori bai, gaur egun herrigu-
nean, auzoetatik kanpo bizi di-
renak ere aintzat hartu dituzte.

Aldi berean, egindako graba-
zioak lantzen eta bideo-pasar-
teak Ahotsak.eus webgunean
ipintzen ere joan dira. Graba-
zioak osorik aztertzen, pasarte
onak identifikatzen, laburpe-
nak egiten, bideo-pasarteak
editatu eta sareratzen... Graba-
zio asko dira eta oraindik ez
dituzte denak aztertu, baina
dagoeneko ia 400 bideo-pa-
sarte labur daude ikusgai
<https://ahotsak.eus/proiektuak/onatiko-noka-ingo-xonau/> helbidean.

Proiektua, beraz, ez da aur-
kezpenarekin amaitu; izan ere,
jasotze-fasea amaituta, lanke-
tarekin jarraituko dute, eta hu-
rrengo urteetan noka biziberri-
tzeko eta hitanoa bultzatzeko
hainbat ekimen egiteko asmoa
dute. Oraindik lan handia da-
goela dio Etxeberriak; beraz, ez
da egun biko kontua izango.
Faseka eta poliki-poliki joango
dira. 2020rako asmoen artean
badute aditz taula batzuk ate-
ratzea, erabilera ohiturak zein
izan diren azaltzea, interesa
daukanaren eskura jartzeko.
Udazkenerako, Jabetze Eskolan
emakumeendako ikastaro bat
antolatze asmoa ere badute.
50 urtetik beherako emakume
gutxiak dakite noka, eta multzo
bat sortu nahi lukete ekimena
aktibatu ahal izateko.

ETENAREN ARRAZOIAK

Hitanoaren transmisioaren
etena aspalditik eta leku asko-
tan gertatu da. Hizkuntza za-
palkuntza mendeetako kon-
tua da Euskal Herrian, debeku
zuzenetik desprestigioraino.
Frankismoan nabarmen, fa-

EUSKAL HERRI OSOKO OROKORTASUNAK

Idoia Etxeberriak dioenez, “Ingo xonau”
ekimenak aurkeztutako ondorioak Oñatiko
nokaren bilakaerari dagozkio. Edonola ere,
Etxeberriak Badihardugu elkartearen
Ahotsak.eus proiektu nagusian parte
hartzen duenez, ondo daki Euskal Herri
osoan, oro har, antzeko bilakaera izan duela
hikako tratamenduak. Sarean jarritako
bideoetan hainbat herrialde eta
eskualdetako lagunak lekukotasunek,
beharbada, diagnostiko orokor baterako
datuak ematen dituzte.

Hitanoa Euskal Herri osoko
mintzamoldea izan zen, beste tratamendu
etiko batzuk –zuketa eta xuketa– edo
beroriketa ez bezala. Egun leku batzuetan
beste batzuetan baino biziago jarraitzen du
hitanoak, eta inguru batzuetan ez da
erabiltzen. Haren desprestigioak orokorra
ematen du, eta, gehien erabiltzen den
eskualdeetan ere, neurri handiagoan edo
txikiagoan, behera egin du hitanoaren
erabilerak, batez ere, eta, alde handiz,
nokarenak. Salbuespenak salbuespen, jende

nagusiari ez zaio hika egiten, adin bertuko
lagunen artean izan ezik, jakina; seme-
alabek gurasoei hika egitea ia pentsaezina
da. Senar-emazteek ere, are ezkongaiak ere,
ez ohi diote elkarri hika egiten. Eta
umetxoei ere ez zaie horrela egiten.

Etxeberriak Oñatin sumatu duenez,
genero ikuspegia ere kontuan hartzeko
moduko faktorea da. Oso ohikoa da, esate
baterako, gurasoek semeari hika egitea
baina alabarekin hizkera ez-alokutiboa
erabiltzea. Horixe erabiltzen dute, neskei
hitz egiteko, hika egiten duten mutilek, edo
are toka ere, noka gero eta ezezaguna denez
gero. Zenbait ingurutako mutilek esango
dute toka eta noka erabiltzen dutela, eta
hala da; joera orokorra, baina, bestea da.

Errespetu falta, itsusia... are bekaturia ere,
moralaren ikuspegi jakin baten arabera.
Guk “Ingo xonau!” ekimenak jasotako
bideo batean Oñatiko emakume batzuei
entzundakoari eutsiko diogu: «Errespetu
kontua baino gehiago, konfiantza kontua
da hitanoa».

milia askotan gertatu zen
transmisioaren etena, hiztun
kopuruak behera egitea era-
gin zuena, baita hiztun askok
erdararako joerari heldu eta
beren lehen hizkuntzan gero
eta trebetasun txikiagoa iza-
tea ere.

Arrazoi hori aipatu du, bes-
teak beste, Idoia Etxeberriak
hitanoaren etena, batez ere
neska artean izandakoa, azal-
tzerakoan. «Hitanoaren erabi-
lera, ez bakarrik Oñatin, beste
leku batzuetan ere, gutxitzen
joan da denborarekin. Alde ba-
tetik, euskararen zapalkuntza-
rekin lotuta dagoela uste du-
gu, erdararako joera gero eta
handiagoa frankismoaren urte
haietan atzerapausoa izan zen,
eta hitanoa baserritarren hiz-
kera moduan eta desprestigia-
tuta geratu zen». Transmisioa-
ren etena gertatu zen. Mutilen
arteak ez hainbestekoa, ordea.



Alde hori azaltzeko, Etxeberriak dio badaudela genero ikuspegiarekin lotutako arrazoiak. «Emakumearen irudiak dotorea, errespetuzkoa izan behar zuen, eta ez zegoen ondo ikusita emakumeek hika egitea, baldarra zelako-edo».

SOZIALIZAZIO ESPARRUETAN, TOKA

Hitanoa lagun arteko mintza-moldea da, baina horrek ez du esan nahi errespetu falta denik; hala ere, zenbait pentsa-molderen arabera, baldarra zen, eta haren erabilera moralarekin lotzeko joera zegoen. Mutilen ahotan, berriz, ez zegoen hain gaizki ikusita, bazuten halako lizentzia. «Mutilek bazituzten sozializazio esparru batzuk neskek ez zituztenak, tabernetan, soziedadeetan, kirol askotan, lantegian bertan, gizonetakoak lehenago eta gehiago hasten baitziren. Beti egon dira berdinen, lagunen arteko giro horretan, aisialdian eta lanean. Sozializatzeko, hitanoari eusteko lekuak izan dira, eta, emakumeen kasuan, ez hainbeste. Azkenean, bateko eta besteko, emakumeen artean gutxituz joan da», dio Etxeberriak.

Baserri-auzoetan erdararen eragina txikiagoa izan da eta, esan bezala, hitanoari hobeto eutsi diote, noka barne. Hala ere, Etxeberriaren ustez, Oñatiko kasuan behintzat, herritik urrunen dauden baserrietatik jende asko kalera joan zen, eta kaletartze prozesu horretan ere egon da transmisioaren etena, hizkera hori baztertu egin zen. Baserritarren artean hitz egiteko modukoa zen, baina kalean, ez; izan ere, kalean emakumeek ez zuten erabiltzen eta eurek ere seme-alabei ez zieten egingo esaten zuten.

«Auzo batzuetan ondo mantendu da toka-noka. Umetan



Aurreko orrialdean, Idoia Etxeberria, «Ingo xonau» egitasmoaren arduraduna. Goian, aurkezpena, Santa Ana antzokian.
Juanan RUIZ | FOKU

horrela ikasi eta horrela ohitu zirenek gaur egun ere jarraitzen dute ondo egiten, noka eta toka», nabarmendu du Etxeberriak.

BESTE ESPERIENTZIA BATZUK

Beste hainbat lekutan ere egin dituzte hitanoaren inguruko ekimenak; esate baterako, ikastaroak. Etxeberriaren ustez, baina, ikastaro bat motz gelditzen da adizkera ohitura bat berpizteari begira. Horretarako

jarraipen bat behar da, eta ez da samurra izaten; edonola ere, orain ba omen dago susperraldi moduko bat, eta Gabirian egin berri duten Nokaldia aipatu du. Zenbait saio teoriko-praktiko eta, Euskaraldiaren antzera, astebetean noka jarduteko ekimena egin zuten, Azpeitian ere ikertzen eta erabilera sustatu nahian dabiltzala dio, edo Antzuolan... «Baina formula magikorik oraindik ez dugu topatu», dio irribarrez.

Oñatin oraindik mutil gazteen artean bizirik dago hiketa, eta beharbada boladan. Hori plus bat dela deritzo Etxeberriak. «Beraz, beharbada hortik tiraka nesken artean ere erabilera zabaltzeko esperantza dugu, gustuko kontua izango duten esperantza». Ez da, beraz, kanpaina labur baterako ekimena, gutxienez datozen urte bietan zehar luzatuko

baita eta lantzen jarraitu beharrekoa baita. Ez lukete pasadizo hutsean geratzerik nahi. Dinamika bat sortu nahi lukete, eta ez da erraza. Izan ere, prozesu bat da, ikasi egin beharra dago, gero praktikatu eta erabiltzeko faseak behar dira, eta dinamika hori sortzen joan behar dute.

Etxeberriak ez du GAUR8ko solasa bukatu nahi eskerrak eman gabe, proiektuak eduki duen harrera onagatik. «Noka dakiten emakumeak oso animatuta eta laguntzeko prest agertu dira gehien-gehienak. Umorez parte hartu dute». Eskerrak, hala berean, datu-biltzaileei, auzoetan hamahiru datu-biltzaile eta informatzaile boluntario aritu baitira baserriz baserri. Ez da lan samurra izan, nonbait, Idoia Etxeberriak berak egiten duen lana ez den modu berean.

**Zergatik joan da galtzen nesken hitanoa?
Zenbat emakumek dakite noka? Nola jaso dute?
Transmititu al dute? «Ingo xonau!» ekimenak
urtebete eman du lanean erantzun bila**

**Nokaren etena azaltzeko, genero ikuspegiarekin
lotutako arrazoiak ere badaudela dio
Etxeberriak: «Ez zegoen ondo ikusita
emakumeek hika egitea, baldarra zelako-edo»**